

PRENTSA OHARRA

Dantzaldia 2007-k dantza eta artea uztartuko ditu Guggenheim Bilbao Museoan

- Sol Picó eta Israel Galván koreografo eta dantzariak Richard Serraren *Denboraren materia*-ren ingururako bereziki sortutako pieza bat dantzatuko dute abenduaren 4 eta 5ean
- Blanca Arrieta, Matxalen Bilbao eta Idoia Zabaletak jaialdiari amaiera emango diote abenduaren 11n Atrioan eskainiko dituzten hiru bakarkako lanekin

Bere Hamargarren Urteurrena dela eta, Dantzaldiaren VIII. edizioaren bi ekitaldi ospatuko dira Guggenheim Bilbao Museoan. Urtero bezala, La Fundación-ek antolatutako Nazioarteko Dantza Jaialdia hiriko toki ezberdinetan garatuko da.

Abenduaren 4 eta 5ean bi emanaldi egongo dira egun bakoitzean: 13:00etan eta 19:00etan. Horietan Sol Picó eta Israel Galván koreografo eta dantzariak *Encuentro* (Elkarketa) aurkeztuko dute, ordu erdiko iraupena izango duen dantza saio berezi bat.

Obra hau nazioartean garrantzitsuak diren bi sortzaile handi hauen eta Richard Serraren arkitektura-labirinto espazioen arteko bilatze eta elkartze joko batean oinarritzen da. Hala, estiloek bat egiten dute, beti ere euren artean hain desberdinak diren nortasun eta hizkuntza bakoitza errespetatuz.

Serraren eskulturak bi paper betetzen ditu proiektu honetan: alde batetik, koreografia jasotzen duen elementua da, eta bestetik aukera paregabea ematen die Picó eta Galváni, *elkartuta* amaitzen dutenei, bakarkako espazioak eta espazio kolektiboak bilatzeko.

Dantzaldiaren VIII. edizioaren barnean baita ere, abenduaren 11n, asteartea, Museoaren Atrioan entzute handiko hiru euskal koreografoen emanaldiak eskainiko dira: Blanca Arrieta, Matxalen Bilbao eta Idoia Zabaletak amaiera emango diote jaialdiari *Chacun à son goût* erakusketarekin —Guggenheim Bilbao Museoak hamabi euskal artistei eskaini diena— elkarrizketan arituko den saio batekin.

Blanca Arrietak *En la ciudad de los ángeles* (Aingeruen hirian) aurkeztuko du, gutxi gorabehera 15 minutu iraungo duen bakarkako lan koreografikoa. Bertan obra koreografikoaren gardentasuna bilatzen da eta baita ikusleekin komunikazio zuzena ere mugimendu zorrotz, leun eta zehatzen bidez.

Ciento cincuenta cuerdas-ek, Blanca Arrietaren dantza konpainiak, ekoiztua, lanak Sascha Engel-en jatorrizko musika du eta Kathy Casey-ren antzezpena. Gainera, koreografoak berak sortu du Montréal Danse-kin lakidetzan L'Agora de la Danse de Montréal-en denboraldi batez bizi ostean.

Matxalen Bilbaok *Mutis* eskainiko du, espazioa ikertzen duen proiektu bat eta agerikoa dena eta ez denaren eta erreala dena eta irudimenezkoa denaren arteko mugak aztertu nahi dituen. Espazioari itxura “erreala” fisikotasunak ematen dion arren (espazioa hartzea, bertatik ibiltzea edo bertan kokatzea ahalbidetzen duena),

artistari benetan interesatzen zaiona hauteman daitezkeen baina beti zehaz ez daitezkeen espazioen aniztasuna da.

Obrak honek 15 minutuko iraupena izango du eta Borja Ramosen jatorrizko musika, Nagore Martínezen jantziak, Olivier Quijera eta Oscar Grijalbaren argizatzea eta Paul Basañez eta Guillermo Almagiaren eszenografia.

Idoia Zabaletak Dantzaldiaren VIII. edizioari amaiera emango dio *Fisura n.º 2* (2. pitzadura) saioarekin. Obra hau *Fisura* (Pitzadura) sailetik —eskakizun zehatzetarako sortutako piezak biltzen dituen— sortu da. Horietako bakoitza sortzerakoan kontuan hartu den ideia ondorengoia izan da: fantasia batetik jaiotzea behar zuela eta zoramena zeharkatu.

Artista honek bere lanetan gehien erabiltzen duen gaietako bat kanpoalde/barrualde binomioa da, barruan eta kanpoan gertatzen denaren arteko harremana hain zuzen. *Fisura n.º 2* lanak pitzadura txikiak irudikatzen ditu; pitzadura horietatik argiak materia zeharkatzen du, espazio biak lotuz.

Hamabost minutuz Idoia Zabaleta mugei eta iragazkortasunari buruz arituko da, iragazkorra izateko modua lortzen saiatuz, barruan dagoena kanpoan dagoenaren berdina den arte.

DANTZA SAIOEN PROGRAMA

Encuentro. Sol Picó eta Israel Galván

Eguna: abenduaren 4a, asteartea, eta 5a, asteazkena.

Orduak: 13:00etan eta 19:00etan bi egunetan.

Lekua: 104 ArcelorMittal aretoa.

Prezioa: Lagunentzako eta Museoaren bisitarientzako doako jarduera.

Euskal Koreografoak. Blanca Arrieta, Matxalen Bilbao eta Idoia Zabaleta

Eguna: asteartea, abenduaren 11.

Ordua: 20:30ean.

Lekua: Guggenheim Bilbao Museoko Atria.

Prezioa: Museoaren Lagunak 5€; Publiko orokorra 10€.

BIOGRAFIAK

SOL PICÓ



Sol Picó (Alacant, 1967) dantza garaikidean ezin ahaz daitekeen izenetako bat da. 1992an hasi zuen bere bakarkako ibilbidea eta 1994an dantza garaikideko bere konpainia profesionala sortu zuen, hari bere izena emanez, eta mundu osoan zehar ibili ziren itzuliak eskainiz. Bere lana genero desberdinak elkarrengaitan duten mestizajearen adar batean kokatzen da. Bere teknika helduak indarra, zehaztasuna eta bizitasuna uztartzen ditu, umoreak dinamizatzen dituen bere sortze-lanen tratu organikoa bermatuz. 1990 eta 2003 urteen artean artista lankidetzan aritu zen dantza garaikideko artista gailenekin eta La Fura dels Baus bezalako antzerki konpainiekin.

Bere ibilbidean zehar jaso dituen sarien artean, sei Max Sari, Estatuak arte eszenikoetan ematen duen sari handiena, aurki daitezke ondorengo kategoriatan: Koreografia Onena *Paella Mixta* lanagatik Israel Galvánekin (2005), Dantza Ikuskizun Onena eta Koreografia Onena *La dona manca o Barbi-Superstar* lanagatik (2004), Dantza Ikuskizun Onena *Bésame el cactus* lanagatik (2003) eta Koreografia Onena eta Emakume Interpretatzaile Onena *Bésame el cactus* lanagatik (2002). 2007. urtean Bilbon Max Sariak emateko ospatu zen galaren zuzendaria izan zen. Dantza ikuskizun onenagatik jaso dituen bi “butaca” sarik eta publikoak eta kritikariek emandako beste zenbait sarik nazioarteko dantza garaikideko munduko erreferentzia garrantzitsuenen artean kokatzen dute artista hau.

ISRAEL GALVÁN



Israel Galván de los Reyes (Sevilla, 1973) koreografo eta flamenko-dantzaria, Sevillako José Galván eta Eugenia de los Reyes flamenko-dantzarien semea, txikitik sartu zen flamenkoaren munduan bere aitaren eskutik. Hala ere, 1994an Mario Mayak zuzentzen zuen eta sortu berria zen Compañía Andaluza de Danza-n sartu zen.

Honela hasi zen geldiezina den ibilbidea, munduko jazz eta flamenko jaialdi ospetsuetan zehar parte hartzera eraman duena. Jaso dituen sarien artean nabarmentzekoak dira batez ere 2005ean “sorkuntza” kategorian lortutako Dantza Sari Nazionala (sari hau beste flamenko-artista bakar batek lortu du: Mario Pagése 2002an) eta *Flamenco Hoy* saria Flamenko-dantzari Onenari, izen bereko aldizkariak 2001ean emana. Enrique Morente, Lagartija Nick eta Estrella Morente, Miguel Poveda, Diego Amador eta Gerardo Núñez bezalako artistekin aritu da

lanean.

Joan den irailaren 29an bere azken ikuskizuna aurkeztu zuen, *El final de este estado de cosas*, Malagako Flamenco 2007 jaialdian. Ikuskizun honetan Pedro G. Romerok —zuzendari artistikoa—, Alfredo Lagosek —gitarra jotzailea—, Diego Carrasco, Fernando Terremoto eta Juan José Amador flamenko kantariak, Bobotek —txaloak jotzen— eta José Carrascok —perkusionarekin— parte hartu dute.

BLANCA ARRIETA



Blanca Arrietaren lana gorputzaren egitura fisiko konplexuan eta honen funtzionamenduan oinarritzen da eta hori ikertzen du. Lan egiteko modu zehatz eta argi bat bilatzen du gauzak kontatu ahal izateko, mugimenduaren bitartez aditzera emanez eta antzerki elementuak ahalik eta gutxien erabiliz.

2006. urtean Ciento cincuenta cuerdas konpainia sortu zuen eta *Silvery snot* ekoiztu zuten, John Scott-ek, Irish Modern Dance Theatre-ko zuzendariak, haientzako bereziki sortutako ikuskizuna. Urte berean konpainia Estatuko Areto Alternatiboen Sareko Zirkuitoan hautatua izan zen.

Bere azken lana, *Rest*, Bartzelonako Mercat de les Flors-ek ekoiztu du. 2008rako *Nostaljia* lana sortu nahi du L'Agora de la Danse de Montréal-ekin lankidetzan.

Sortzaile bezala, Blanca Arrietaren koreografia lanak estatuko areto eta jaialdi nagusietan aurkeztu izan dira, hala nola, Sitgesko Arte eszenikoen jaialdiaren 34. edizioan, Portugalgo Lau urtaroak-Sintrako Dantza Jaialdian, Bartzelonako Cicle Endansa de L'Espace-n, 2004ko Santiagoko Alternativa jaialdian, Gasteizko Artium Museoan, Valentziako Dansa jaialdian, 2004ko Gasteizko Maiatza Dantzan jaialdian, Donostiako Antzerki azokan, eta abar. Gainera, dantzari bezala Damián Muñoz Danza, Londresko Imlata Dance Company eta Momentary Fusion, Dublingo Dance Theatre of Ireland eta CoisCeim Dance Theatre-kin aritu izan da lanean, bai eta Charles Cre Ange (Frantzia) eta Philippe Saire (Suitza) koreografoekin ere.

MATXALEN BILBAO



Dantza klasikoa eta garaikidea ikasten hasi zen "limoi" teknikan espezializatuz.

1989tik 1991ra Forros konpainian dantzatu zuen eta 1992tik 1996ra Bilboko Con buen pie konpainiako kide izan zen. Bertan zegoela sortu zuen bere lehen pieza laburra. Beranduago Gasteizko Damián Muñoz Danzan dantzatu zuen, eta 1998an *Malvaloca* musika ikuskizunean parte hartu zuen dantzari-aktorea gisa, Ramón Barearen zuzendaritzapean.

2000. urtean poesia errezitaldietan dantzatu eta horietarako koreografiak sortu zituen Galatea konpainiarekin. Honela inprobisazioaren bidean sartu zen eta urte bat beranduago, Irungo Lagaleon antzerki taldearentzat lanean

hasi zen. Bideo-sormen lehiaketa ezberdinetan saritutako *Deriva* bideo-dantza sortzen ere parte hartu zuen, eta 2006an Santiagoko *Matarile*-rentzat lan egin zuen.

1998tik, Matxalenek berak sortu zituen *Haiku4* (2007), *Capricho* (2005), *Lotura* (2004) eta *Mutis* (2003), Estatuko hiri ugarian aurkeztu diren lanak. Gaur egun *Vuelta de tuerca* bakarkako lana aurkezten dabil Lau urtarok-Sintrako Dantza Jaialdian (Portugal), eta bertan tailer bateko irakaslea da baita ere.

IDOIA ZABALETA



1990. urtean “Asociación de Danza y Lenguajes Corporales Moaré” sortu zuen, Euskal Herrian Dantza-Berria eta Contact-Inprobisazioa erakusten eta proiektuak sortzen eta ekoizten aritzen dena (horien artean *Conversaciones*, *Runas*, *Surco*, *Motz* eta *Chance*).

Mal Pelo konpainiarekin aktorea lanetan aritzen da, María Muñoz eta Pep Ramísen zuzendaritzapean; KLEM elektroakustika laborategiarekin ere elkarlanean aritzen da zuzeneko musika, arte bisualak eta dantza eszenan nola sar daitezkeen aztertuz eta ikertuz, eta pieza batzuk Ljubljana, Tokio, Manchester, Milan, Paris eta abarreko jaialdietan aurkeztuz.

2000. urtean *La puta inocencia* sortu zuen, Borja Ramos (elektroakustika) eta Isabel de Naveránekin (artista bisuala); 2004an *Gau bakar bat* zuzendu zuen, dantza-antzerkia eta olerkia uztartzen dituen pieza; 2005ean Gasteizko Arte Garaikideko Euskal Zentro Museoan *Gata Sombra* estreinatu zuen eta *Dueto* proiektuan lan egin zuen Filipa Francisco Portugalgo koreografoarekin batera. 2007. urtean *Piel* eta *Sites of Imagination: Beirut* proiektuen sorkuntzan eta ekoizpenean parte hartu du.

Era berean, dantza eta Contact-Inprobisazio tailerrak egiten ditu Estatu osoko dantza eta antzerki eskoletan eta unibertsitateetan, hala nola, Alteaiko Fakultatean, Leongo Unibertsitateko I.N.E.F. Fakultatean,artzelonako Unibertsitate Autonomoan, Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) edo Gasteizko Antzerki eskolan. Gainera, Bilboko Muelle 3 dantza zentroko zuzendarietako bat da eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Dantza Ikasgelako zuzendaria.

“Gorputz eremuak” izeneko ikerketa eta sormen laborategiaren zuzendaria da, Gasteizko Artium-Arte Garaikideko Euskal Zentro Museoarekin lankidetzan antolatua izan dena.

Bilbo, 2007ko abenduaren 3a

Eman izena Guggenheim Bilbao Museoko Web horri barriak daukan prentsa-eremuan.
<http://www.guggenheim-bilbao.es/>